

Mundu Garaikiderako Zientziak Bigarren Hezkuntzan

1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgaia:** Mundu Garaikiderako Zientziak Bigarren Hezkuntzan
- **Modulua:** Natur Zientziak eta Matematika, ME II
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Josu Lopez Gazpio

2. Irakasgaiaren laburpena

Irakasgai honetan Bigarren Hezkuntzako ikasleek Mundu Garaikiderako Zientzien arloan dituzten aurrezagutzak eta ideia alternatiboak aztertuko dira. Zientzien irakaskuntzarako estrategia metodologiko eta didaktikoak landuko dira. Mundu Garaikiderako Zientzien arloko sekuentzia didaktikoak aztertu eta sortuko dira eta zientziaren irakaskuntzan lan praktikoak duen garrantzia landuko da, ikerketa gidatu esperimentalen ezinbestekotasuna azpimarratuz.

3. Gaitasunak

- Irakasgaiko konpetentziak

Mundu Garaikiderako Zientziak materiako curriculumaren arabeko edukiak ezagutzea eta, orobat, ikaste-irakaste prozesuei buruzko ezagutza didaktikoak. Mundu Garaikiderako Zientzien ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak ezagutzea.

Mundu Garaikiderako Zientzien curriculumeko edukiak lan jardueretan bihurtzen jakitea (sekuentzia didaktikoak)

Indarrean dagoen curriculum-diseinua analizatuz, Mundu Garaikiderako Zientzien irakaskuntzarako materialak sortzeko baliagarriak diren irizpideak lortzea.

Mundu Garaikiderako Zientzien ikaskuntzan lagunduko duen giroa sortzea eta ikasleek ekarpenei garrantzia ematen jakitea.

Ikaste-irakaste prozesua planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, heziketa-prozesuak indartuz irakaskuntza bakoitzari dagozkion konpetentziak eskuratzeko. Horretarako, ikasleen hasierako mailari eta prestakuntzari erreparatuz.

Estrategiak eskuratzeko ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta, orobat, pentsatzeko eta erabakitzeko trebetasunak garatzeko; horretarako, haren autonomia, konfiantza eta iniziatiba sendotuko dira.

- **Tituluko konpetentziak**

CB6. Ideiak garatu eta/edo aplikatzean originalak izateko oinarria edo aukera ematen duten ezagutzak edukitzea eta ulertzea, askotan ikerketa-testuinguru batean.

CB7. Ikasleek beren ikasketa-arloarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan) eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna aplikatzen jakitea.

CB8. Ikasleak ezagutzak integratzeko eta iritziak formulatzearen konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, informazio osatugabea edo mugatua izanik, beren ezagutzak eta iritziak aplikatzearekin lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak barne hartzen dituen.

CT1988 - Giza eskubideen, berdintasunaren, generoaren, kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren aldeko jarrera proaktiboak sortzea.

CE1582 - Ezagutza, trebetasun eta gaitasun intelektual eta emozionaletan oinarritutako proposamenak egitea.

CE1589 - Hezkuntza ingurunearekin lotzea eta familiaren eta komunitatearen hezkuntza-funtzioa ulertzea, bai gaitasunak eta ikaskuntzak eskuratzeari dagokionez, bai eskubideak eta askatasunak errespetatzeari, gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-berdintasunari eta desgaitasunen bat duten pertsonen tratu- eta diskriminazio-berdintasunari dagokienez.

4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)

- Mundu Garaikiderako Zientziak: irakasgaia ulertzeko moduak
- Kultura Zientifikoa
- Zientziaren beharra hezkuntzan. Zehar-gaiak
- Mundu Garaikiderako Zientzien ikaskuntza eta irakaskuntza
- Curriculumari gainbegirada
- STEAM arloaren inguruko aukerak
- Ikerketa gidatuak eta irakaskuntza berrikuntzarako aukerak
- Lan praktikoak MGZ arloan

5. Bibliografia

- Fisikaren eta Kimikaren ikaskuntza eta irakaskuntza. J.M. Etxabe Urbieta. EHUko Argitalpen Zerbitzua (2017)
- Mundu Garaikiderako Zientziak. Batxilergoa. A. Garrido González. Giltza Argitaletxea (2009)
- Ciencias para el Mundo Contemporáneo. Aproximaciones didácticas. FECYT (2008)
- Enseñanza de las Ciencias, Revista de investigación y experiencias didácticas
- Revista Eureka sobre enseñanza y divulgación de las Ciencias
- Alambique. Didáctica de las Ciencias Experimentales.